

## ASMA DEZAGUN TXERTOA POBREZIAREN AURKA

DENBORA: 4 ESKOLA-ORDU

## IKASKUNTZA - JARDUERAK

## 1 AHAZTUTAKO GAIXOTASUNAK ALA AHAZTUTAKO GAIXOAK

**Helburuak:** Gaixotasunek gaixoak ezkututzen dituztela onartzea. Gaixotasunen eta pobrezia-aren arteko erlazioa aitortzea.

**Deskripzioa:** Jarduerak hiru atal ditu: lehenengoak —izaera informatiboa du bereizki— hainbat gaixotasun aipatzen ditu, batzuk ezezagunak izango dira ikasleentzat, baina, aldiz, eragin handikoak dira Hegoko populazioetan.

Paludismoa edo malaria	Paludismoa oso hedatuta dago tropikoan eta heriotza-eragile handienetarikoa da munduan. Izan ere, 400-500 milioi pertsona kutsatzen ditu gaixotasun horrek urtean munduan. Gaixotasun hori Anopheles izeneko eltxo baten emearen ziztadak transmititzen du.
Tuberkulosia	Gaixotasun hau mikrobakterioa batek eragindako infekzioak sortzen du, eta gero eta kasu gehiago daude munduan; gutxi gora behera 8 milioi pertsona urtean.
Tripanosomasi afrikarra	Gaixotasun infekzioso parasitarioa da, tsé-tsé izeneko euli batek transmititua, zeinaren eraginez, zerebroa eta haren mintzak (meningeak) hanpatzen diren; koma eragiten du, eta horregatik esaten zaio "logurearen gaixotasuna". Afrikan gertatzen da bereizki; urtean 20.000 kasu berri.
Leishmaniasia	Gaixotasun hau Phlebotominae familiako intsektu baten ziztadaren bitartez transmititzen da. Intsektu horrek ziztatzen duenean, leishmania sartzen da gorputzean, eta hainbat eragin-mota izan ditzake: larruko ultzeratik hasi eta heriotzeraino. Batez ere Afrikan eta Latinoamerikan da ezaguna gaixotasun hau, baina Asian eta Europan ere bai. Izan ere munduko 88 herrialdeetan du eragina, Espainian ere bai.

Jardueraren bigarren atalak proposatzen du munduan osasunera iristeko dauden ezberdintasunak aztertzea, informazio batzuetatik abiatuz. Lehenik, grafiko batek zenbait gobernu osasunean eta hezkuntzan inbertitzen duten diru-multzoa erakusten du, kanpo-zorra ordaintzen edo gastu militarretan inbertitzen dutenarekin alderatuz. Jarduera honek osasuna gobernuen esku ere badagoela nabarmentzen laguntzen digu, eta ohartarazten borondate hori inbertsionetan neurtzen dela, besteak beste. Bigarrenik, agertzen den mapak erakusten digu zein izango den arazo horren egoera 2015ean gaur egungo egoerarekin alderatuz, gaur ezagutzen ditugun baldintzak mantentzen badira; ez bada borrokarik egiten pobrezia-aren aurka eta osasunean gehiago inbertitzen ez bada. Bi informazio horiek lagun, eztabaida sortu behar da Iparraren-Hegoaren arteko ezberdintasunei buruz, osasuna eskuratzeari dagokionez. Gogoeta horrek segida izango du hurrengo jardueran. Azkeneko galderen bitartez, osasunaren eta pobrezia-aren arteko erlazioaz jabetuko gara.

**Orientabideak:** Lehenengo atalak Hegokoak diren gaixotasun batzuk aipatzen ditu, baina Iparraren ere badute eragina dagoeneko, gero eta jende gehiago ibiltzen baita joan-etorrian (turismoa, migrazioak...). Atal hau aberats daiteke Hegokoak soilik ez diren gaixotasun batzuk aipatuz, baina han ere eragina dutenak: HIESa, adibidez. Informazio honetan sartzea merezi duen aspektu bat da gaixotasun horiek familiengan duten eragina (tratamenduen kostuagatik eta gaixotasunak irauten duen bitartean ezinezkoa zaielako lan egitea; beraz, dirua irabaztea). Grafikoaren analisiari dagokionez, honela jokatu dugu: eman ikasleei bi zerrenda: bata "ondasun globalei" dagokie (dela hezkuntza, osasuna, seguritatea edo ingurumenaren kontserbazioa) eta bestea gainerako ondasunei (hala nola, dibertsioa, irteteko dirua edukitzea, etab.). Horren bidez, oinarrizko premiak identifikatzen saiatuko gara eta, ondoren, gobernuen eta nazioarteko komunitatearen zereginaz eztabaidatuko dugu, premia horiek guztientzat bideratzeko bermeari dagokionez.

**Proposamen osagarriak:** Guztiz garrantzitsua da HIESari dagokion gaia atal honetan lantzea, erraza baita gaixotasun honek planetako hainbat tokitan duen eraginari buruz informazioa eskuratzea, eta antierretrobiralak lortzea kostuaren arabera.

---

## 2 ZENBAKIAK ZENBAKI

**Helburuak:** Osasuna eta garapena erlazionatzea.

**Deskripzioa:** Jarduera osagarri modura proposatzen da Osasunean inbertitu izeneko jarduera lantzea (LMH-ko 3. mailako koadernoan dago). Jarduera honetan bi mapa agertzen dira, non erakusten den ezen borondate politikoa izanik, inbertsioarekin eta planifikazioarekin batera, emaitza positiboak ateratzen direla osasunari dagokionez —polioaren desagerpenak erakusten duen bezala, adibidez—. Hurrengo koadroak erakusten du nola banatzen diren botikak lurraldez-lurralde. Botika-kontsumoari buruzko gogoeta Bidaia botikaren inguruan izeneko jarduerarekin osa daiteke (LMH-ko 3. mailako koadernoan dago).

**Orientabideak:** Jarduera lagungarria izan daiteke aurreko jardueran hasitako gogoeta burutzeko, bi adieratan: Iparrean eta Hegoan botikak eskuratzeko dauden aldeei dagokienez, eta osasunera iristeko borondate politikoa duen garrantziari dagokionez. Botika-kontsumoari buruzko informazioa dela eta, garrantzi handikoa litzateke nabarmentzea Iparraren/Hegoaren arteko ezberdintasunak ez ezik, Iparrean dagoen botika-kontsumoa, sarri gehiegizkoa. Azpimarratu beharra dago guk botikak eskuratzeko dugun erraztasuna beste askoren zailtasunaren aldean.

---

## 3 INDUSTRIAREN JOKOA

**Helburuak:** Botikari buruzko gogoetan faktore etikoa sartzea.

**Deskripzioa:** Roleko joko bat egitea proposatzen du jarduera honek, non ikasleek —taldetan banatuta, eta botikak ekoizten dituen enpresa baten jabe bihurturik—, hainbat alternatibaren artean hautua egin beharko duten. Alde batetik, botikarekin erlazionaturiko lau kontzeptu sartzeko balio du jarduera honek (botika generikoak, oinarrizkoak, pazienteen premien araberako ikerketak edo etekin ekonomikoaren araberakoak, eta eskuratu ahal izateko ardura); eta bestetik, izaera etikoa duten erabakiak lehenetsi eta hartzeko premiari buruzko hausnarketa abiatzeko. Jarduera hau hurrengoarekin estuki lotuta dago, han ekintza kolektiboa egitea proposatzen baita.

**Orientabideak:** Botikak dirua irabazteko balio dute, hein batean —negozio dira—, baina osasuna izateko eskubidearekin bateragarri egin beharra dago. Ideia horretatik abiatuz, hausnarketa etikoak egin behar dira botikaren hainbat aspekturi buruz, haietako askok zerikusia baitute patenteen politikarekin (patentea: enpresa batek duen jabego eksklusibo temporal mugatua produktu bat fabrikatzeko, ikerketan eta garapenean inbertitutako dirua berreskuratzeko formula modura). Galde egin daiteke ea patente guztiek dinamika berbera edo diferentea izan behar duten, osasuna jokoan dagoenean.

---

## 4 ETA GUK, ZER EGIN DEZAKEGU?

**Helburuak:** Botikak nola erabiltzen ditugun berrikustea eta botikak oparitzeak dituen ondorioak aztertzea.

**Deskripzioa:** Jarduera honek hiru atal ditu. Lehenengoak gogoeta indibiduala eta kolektiboa egiteko balio du, eta galdetzen digu ea zer egin ahal dugun botikaren zikloaren joko-arauak aldatzeko, kontsumitzaile/erabiltzaile garen aldetik. Bigarrenak botiken soberakinak oparitzen ibiltzea baztertu nahi du, Hegoko premiak asetze aldera, kasu batzuk aipatuz. “Sendatzen ez duten Botikak” izeneko kanpainaren aurkezpenak gai horren inguruan hausnartzea ahalbidetu behar du, oinarrizko botika sustatzea lehenestera bultzatuz.

**Orientabideak:** Botikak negozio dira hein batean, jakina, baina eskubide hori osasuntsu biziteko eskubideari egokitu behar zaio. Ideia horretan finko, gogoeta etikoak egin nahi dira botikaren hainbat aspekturi buruz, haietako askok zerikusia baitute patenteen politikarekin (patentea: enpresa batek duen jabego eksklusibo temporal mugatua produktu bat fabrikatzeko, ikerketan eta garapenean inbertitutako dirua berreskuratzeko formula modura). Galde egin daiteke ea patente guztiek dinamika berbera edo diferentea izan behar duten, osasuna jokoan dagoenean. Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea produktuak oparitzea (kasu honetan botikak) ez dela arazoa konpontzeko modurik onena (kasu honetan, botikak eskuratu ahal izateko), baizik sakontasun handiagorekin jokatu behar dela (iturrietara joz).

**Proposamen osagarriak:** Proposatutako auditoriak egin ahal izateko, osasunean aditua den norbaiten laguntza bilatzea komeni da (zentrotik hurbilen dagoen osasun-zentrokoa, hurbileko botikaria) botikak aztertu eta, adibidez, Zentroko botikina nolakoa izan beharko lukeen aholku emateko. Amaitzeko, proposamena luzatu ahal zaio Zentroko zuzendaritzari botikina alda dezan.

Bigarren Mailako Hezkuntza

# ASMA DEZAGUN TXERTOA POBREZIAREN AURKA




Autorea: Raúl Aguado

medicuumundi



Intermón Oxfam

Irakur itzazu ondoko datuok:



Gaixotasun hauek guztiak Hegoan gertatzen dira. “Ahaztutako gaixotasun” horietako batzuk dira, zeinek urtean milioika hildako eragin ez ezik, are pobrezia handiagoa sortzen baitute, eragotzi egiten baitiote jendeari osasun-egoera egokia eduki dezan, lan egin ahal izateko.


**Atera zure ondorioak:**

- Datuak aztertu ondoren, zure ustez zaila al da “ahaztutako gaixotasunak” horietatik batzuk eragozteko?
- Ahaztutako gaixotasun horiek herrialde aberatsetan gertatuko balira, zer eragin izango luke?

# AZTUTAKO GAIXOAK

## Behatu ondoko grafikoa eta mapa:


Grafiko honek gobernu batzuek hezkuntzan, osasunean, gastu militarretan eta kanpo-zorra ordaintzen egindako inbertsioak erakusten ditu. Zer irizten diozu?



Iturria: PNUD, Giza garapenari buruzko txostena, 2005

## Haurren heriotzak

Arazoaren egoera 2015ean, gaur egungo neurriak gorde ez ezik, pobrezia aurka borrokatzen ez bada eta osasunean gehiago inbertitzen ez bada.



Iturria: PNUD, Giza garapenari buruzko txostena, 2005

tasun” horiek eragindako hildakoen kopurua murriztea?  
ra...


## Behatu hurrengo bi mapa hauek.

Ohartuko zara azken 15 urteotan gero eta herrialde gutxiagotan dela endemikoa poliemilitis izeneko gaixotasuna.



1988  
125 herrialde bain gehiago

■ Endemikoak  
□ Ez endemikoak




2005  
7 herrialde

■ Endemikoak  
□ Ez endemikoak

Iturria: OMS, *Osasuna munduan txostena*, 2003

## Botika-kontsumoaren banaketa ez-berdina

Behatu hurrengo taula, non zehazten dugun erlazio bat, munduko populazioaren batezbestekoaren eta botika-kontsumoaren artekoa, hain justu.



ZONALDEA	POPULAZIOA	KONTSUMOA
Afrika	%13	%2
Latinoamerika	%8	%7
Asia	%5	%8
Ekialdeko Europa	%8	%3
<b>AZPIKONTUA</b>	<b>%86</b>	<b>%20</b>
AEB eta Kanada	%5	%32
Mendebaldeko Europa	%7	%32
Japonia	%2	%16
<b>OROTARA</b>	<b>%14</b>	<b>%80</b>

*Medicamentos y desarrollo. La realidad de los medicamentos: un viaje alrededor del mundo.* Natalia Herce Koord. Medicus Mundi, 2003

Herrialde pobreenak osasun txarrena dutenak badira hainbat arrazoirengatik, zergatik dira botika gutxien kontsumitzen dutenak?

Botikak fabrikatzen dituen empresa handi bateko jabeak zarete, eta Munduko Osasun-erakundeak zuen konpromisoa eskatzen dizue populazio pobretuenei laguntzeko, zuen etekinak apurtxo bat murriztuz.

Horretarako, 4 alternatiba aurkezten dizkizue. Aukeratu horietatik bi eta azaldu:



**Oinarrizko botikak fabrikatu:** Munduko gehienen osasun-premiak asetzeko balio duten 250 botika, prezio ordaingarritan. Gaixotasunen %90i aurre egiteko balio dute.

**Botika generikoak fabrikatu:** Botika erraginkorrak, seguruak eta kalitatezkoak, beren printzipio aktibotik izena hartzen dutenak, eta %50 edo %80 merkeagoak direnak, patenteak ordaindu beharrik ez dagoelako.

**Botiken prezioak jaitsi herrialde pobreenetan:** hainbat gaixotasun sendatzeko (HIESa adibidez) botika moderno eta eraginkorrak eskura jartzeko asmoz.

**“Ahaztutako gaixotasunentzako” botikak ikertu:** ia etekinik utziko ez dituen botikak, erabiltzaileak baliabide eskasekoak direlako.

Erabaki bat hartu behar duzue, kontuan hartuz dirua irabazi nahi duzuen empresa zaretela, baina fabrikatzen duzuen produktua kontsumo-ondasuna ez ezik premiazko elementua ere bada pertsonen osasunerako.

# ETA GUK, ZER EGIN DEZAKEGU?

Irakaslearen laguntzaz, botiken auditoria egingo duzue, zuen zentroko o botikina eta etxekoa aztertuz.

Hegoan osasuna hobetzeko modu bat botika oinarrizkoak eta generikoak sustatzea da, beste botiken ordeztuz haiek kontsumituz (beti erretarekin).



## Eta soberan ditugun botikekin zer egin?

Etxean erabiltzen ditugun botikak farmazian utzi behar dira. Inoiz ez bota zaramara, oso kutsagarriak direlako eta, gainera, beste pertsona batzuen premiak asetzeko ere balio ez dutelako. Botikak emateak askotan arazoak baino ez dizkigu sortzen...

Sartu helbidde honetan. [www.medicamentsquenocuren/castella/mesinfo.htm](http://www.medicamentsquenocuren/castella/mesinfo.htm)

2005eko martxoaren 27a

E g u n k a r i a

Iturria: Sendatzen ez duten botikak

### LABURRAK

■ **Ertamerika, 1998.** Hartutako botika gehienek etiketa irakurgaitzak zituzten, eta printzipio aktiboa erakusten ez zuten izenak zeramatzaten.

■ **Sudan, 1999.** Lentillentzako produktuak eta janguraren pizgarriak bidali ziren, gose den populazioarentzat.

■ **Bosnia-Herzegovina, 1992-1996.** Oparitutako 35.000 tona botikatik 17.000 ez ziren erabilgarriak, eta baztertu egin behar izan ziren. Haiek suntsitzen sartutako diruak bost urtez bi milioi errefuxiatuen oinarrizko premiak asetzeko balioko luke.